

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5101

EBAZPENA, 2019ko urriaren 24koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen den 2019ko urtean itsas kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzeko deialdiko laguntzen balorazio-batzordearen kideen izendapena.

Aztertuta geratu da itsas kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzeko 2019ko dirulaguntzetarako deialdia egiten duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko irailaren 17ko Agindua.

Agindu horren 14. artikulua araber, balorazio-batzorde horren osaera Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordearen osaera jakinaraztea. Hona hemen kideak:

Batzordeburua:

– Mikel Aizpuru Murua, Kultura Ondarearen zuzendaria.

Batzordekideak:

– Abdona Gil Abad, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren arduraduna.

– Armando Llamosas Rubio, Kultura Ondarearen teknikoa, batzordeko idazkari-lanetan.

Eta itsas kultur-ondarearen arloan entzute handia duten bi pertsona:

– Xabier Alberdi Lonbide.

– Juan Antonio Apraiz Zallo.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 24a.

Kulturako sailburuordea,

JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.